

Zatoz Ategorrieta berria ezagutzera

Gogoratu bihar, larunbata, ate irekiak izango ditugula Ategorrietako eraikin berrian, goiz eta arratsaldez. Oraindik ere izena eman ez badu edo eman ez duen norbait ezagutzen baduzue, animatu! [Izen-ematea](#).

ZATOZ
ATEGORRIETA BERRIRA



Osakidetzako errebisioak

Orain artean Osakidetzaren Haurren Osasunerako Programaren (HOP) hainbat errebisio Ikastolan egiten ziren, horretarako baimena ematen zuten ikasleekin. Osasun Sailak familien artean zabaltzeko informazioa helarazi digu; izan ere, aurrerantzean, errebisio horiek anbulategian egin beharko dira, haurrekin batera familiaek egotea oso garrantzitsua dela baloratu baitute, hainbat arazoren detekziorako eta familien implikazioa sustatzeko.


[Hemen](#) duzue informazio zabalagoa.
[INFO+](#)

Osakidetza




Hendaiaiko Ikastolako egutegiak

Aurten ere, Hendaiaiko ikastolak Txokolatezko Egutegien proiektua jarri du martxan, eta berriro ere ikastolen arteko elkartsuna adieraziz eta iparraldeko ikastolei bultzada emateko asmoz, ikastolan bertan eskatu eta jaso ahal izango dituzue egutegiak, 10 euroren truke. Gaur bertan jaso dute ikasleek eskaera-orria. [Zirkularra](#).




Guraso-eskola: "Teknologia berriei mugak jartzen"

Mugikorren eta sare sozialen erabilera asko handitu da haur eta gazteen artean azken urteotan, eta gero eta ikerketa gehiagok arre塔 hori behar dugula agerian uzten dute. Honi guztiai heltzeko, Bidelagun taldearen eskutik bi hitzaldi-tailer eskainiko ditugu azaroan, LH4-Seko gurasoentzat alde batetik, eta, iaz egindako lanketari jarraipena emanez, LH6eko gurasoentzat bestetik. Hitzaldi horietan mugikorren erabilera atzeratzeko gure ikastolan sortutako Teknoiz guraso taldeak ere parte hartuko du. [Zirkular honetan](#) dituzue informazio guztia eta izen-emate galdeteziak.



Okendora bisitak

Azken asteetan, DBH 1 eta 2ko ikasleok Okendo Liburutegian izan gara bisitan. Bertako langileen eskutik, liburutegiaren funtzionamendua hobetu ezagutzeko aukera izan dugu, eta aurrerantzean liburuak maileguan hartzeko egin beharrekoak azaldu dizkigute. Istorioz beteriko mundua dugu eskusura!



Steam Sare topaketak

Batxilergo 1eko hainbat ikaslek Steam Sare topaketetan parte hartu genuen. Innobasquek, Elhuyar Fundazioak eta Eusko Jaurlaritzak antolaturiko topaketak dira, gazteei orientazio profesionalen laguntzeko prestatuak, eta bertan hainbat STEM profesionalen elkarriketak izateko auker izan genuen, haien esperientziak eta gure zalantza eta kezkak partekatuz. Esperientzia bikaina!



Zurrimendi irteera jendetsua Bianditzeria

Eguraldia lagun, 100 zurrimendizale baino gehiagok hartu genuen parte urriaren 16an Arribulotik Bianditzeroko ibilaldian. Hurrengo irteera azaroaren 20an egindo dugu, Gaztelu aldean. Jarrai dezagun elkarrekin mendiaz eta euskaraz gozatzen!



OHARRAK / AGENDA:

- HH5: Basoekolako irteerak. [Zirkularra](#).

• LH2: Goizpasa hondartzara. Uriak 28.

• Guraso ordezkarien bilera: Uriak 27. 17:00.

• Eskola Kontseilua: [Izen-ematea](#) zabalik.

• Eskola Kirola: [2. Jardunaldia](#).

• Helduen Danborrada: Batzar Orokorra. Uriak 26. 19:00. [Deialdia](#).
Gai-ordena.



@zurriolartetarte